


EAEEn, 18 eta 34 urte bitarteko gazteen erdiak baino gutxiago daude emantzipaturik

Espainiako Gazteriaren Kontseiluak 2010eko bigarren hiruhilekoari dagokion *OBJOVI* (*Observatorio joven de vivienda en España*) buletinean argitaratu dituen datuen arabera, EAEko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen erdiak baino gutxiago (%44,1) bizi dira emantzipaturik, hau da, jatorrizko etxetik kanpo. EAEko 18 eta 34 urte bitarteko emakume gazteen emantzipazio-tasa handiagoa da gizonena baino (%49,2 eta %39,1, hurrenez hurren).

Nabarmentzeko modukoa da **EAEko emantzipazio-tasa estatuko batez bestekoaren azpitik dagoela** (%45,8).

Horrez gain, EAEko **etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua**, %66koa da gazte batentzat, batez beste. Kalkulu hau egiteko, aintzat hartzen dira gazte baten erosahalmena eta hipoteka-maileguaren hasierako zenbatekoa —2010eko bigarren hiruhilekoan etxebizitza libre batek izan duen batez besteko salneurriaren %80ari epe horretako interes-tipoa eta amortizazio-epe estandarra aplikatuta lortzen dena—.

Kostu horrek behera egiten du adinean gora egin ahala. Izan ere, %86koa da 18 eta 24 urte bitartekoentzat eta %59koa 30 eta 34 urte bitartekoentzat. Beste alde batetik, etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua handiagoa da emakume gazteentzat (%73,3koa) gizon gazteentzat baino (%60,8). Nolanahi ere, kostua nabarmen altuagoa da EAEen Espainian (batez beste) baino: %66 eta %52,4, hurrenez hurren. Hain zuzen ere, Gipuzkoa eta Bizkaiko gazteak dira, Bartzelonakoekin batera, etxebizitza eskuratzeko kosturik garaiena dutenak Espainian.



Iturria: [OBJOVI 31](#) (2010eko bigarren seiuhilekoa).

Edonola ere, etxebizitza jabetzan hartzeko ahalegin-mailak, hau da, gazte batek xede horretarako erabili beharko lukeen **soldataren ehunekoak**, garrantzizko beherakada izan du azken urteotan, 2008an %105,5 izatetik gaur egungo %66ra igaro da eta.

Beste alde batetik, *OBJOVI* buletinean egindako kalkuluak aintzat harturik, **gazte batek**, etxebizitza libre bat jabetzan eskuratze aldera bere diru-sarreraren %30 erabili ahal izateko —hori baita finantza-erakundeek hipoteka-eskari baten bideragarritasuna neurtzeko erabili ohi duten gehienezko zorpetze-maila—, **urtean 39.396 € garbi kobratu beharko lituzke**, eta, errealitatean, 17.914 €kobratzen ditu batez beste.